

Ondo Bizi Arte Egonaldia III.

III RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR



2019

KARRANTZA

Ondo Bizi Arte Egonaldia III.

III RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR

Raúl Palacio

Karrantzako alkatea

Alcalde del Valle de Carranza

Gaur egun mundu osoan dauden ardi arrazek (500 baino gehiago, eta haien artean Karrantzako ardi muturgorria eta muturbelta) arbaso komun bat dute: antzinako Mesopotamiako mufloia basatia. Hori izan zen gizakiek etxekotutako lehen animalia, bere larrua, artilea, okela, esnea... aprobetxatzeko. Ordutik gaur arte, ardiak gizakion lagun izan dira; horrenbestez, artzain-kultura oinarrizkoa eta ezinbestekoa da gure lurrarde eta paisaiak ulertzeko. Funtsezkoa izan zen, halaber, merkataritzaren hasieran, eta landako etxeiko ekonomietan. Azken horren fede ematen dugu Karrantzan; izan ere, urte askotan zehar, hori izan da baserrien sostengua, edo behintzat, familia-ekonomia dibertsifikatu osagarri.

Bestetik, artea, xede estetiko eta baita komunikatiboarekin ere eginiko edozein jarduera edo produktu gisa ulertuta, askotariko errekurtoen bidez ideiak etaemozoia adierazteko erabiltzen dena, gure espeziearen bidelagun ere izan da, oso aspaldiko garaietatik. Arte primitiboena, historiaurreko artea, ere ez da ezezaguna Karrantzan. Ventalaperrako haitzuloa Euskal Herriko adierazpen artistiko zaharrenen etxea da. Bertan dauden grabatuak duela 25.000-30.000 urtekoak dira.

Las diferentes razas de oveja que hoy se distribuyen por el mundo entero (más de 500, entre ellas la oveja carranzana de cara rubia y de cara negra), tienen un antepasado común, el muflón salvaje de la antigua Mesopotamia. Éstos, fueron uno de los primeros animales en ser domesticados por los humanos para el aprovechamiento de sus pieles, su lana, su carne y su leche, etc.... Desde entonces hasta hoy día, las ovejas han acompañado a la humanidad, siendo por tanto la cultura pastoril básica y fundamental para entender nuestro territorio y nuestros paisajes. También fueron básicas en el inicio del comercio, e igualmente importantes en las economías domésticas rurales, y de ello damos fe en Karrantza, ya que han sido durante muchos años el sustento de los caseríos, o al menos, complemento en las diversificadas economías familiares.

Por otro lado, el arte, entendido como cualquier actividad o producto realizado con una finalidad estética y también comunicativa, para expresar o realzar ideas y/o emociones a través de múltiples recursos, también ha acompañado a nuestra especie desde tiempos inmemoriales. El arte más primitivo, el arte prehistórico, tampoco nos es desconocido en Karrantza. La Cueva de Ventalaperra es la morada de las expresiones artísticas más antiguas del País Vasco, y sus grabados datan de entre 25.000 y 30.000 años de antigüedad.

Hala ere, artzaintzaren munduak eta artearenak, gure artean milaka urtez egonda badira ere, bide paralelok baina elkarri lotu gabeak egin dituzte. Margoa izan daiteke horren salbuespen bat. Izan ere, artzain eta arkumeen margolanak ohikoak izan dira, bereziki beren sinbología erlijiosoagatik (Murilloren “Buen Pastor” (1660) lanetik hasi, Vincent van Gogh “Pastor con rebaño de ovejas” (1884) lanarekin jarraitu eta Franz Marcen “El cordero” (1914) lanera arte). Baina salbuespen hori kenduta, esan dezakegu artea eta artzain-kultura mundu bereiziak izan direla. Bigarrena, logika osoz, landa munduan garatu da; artea, berriz, oro har behintzat, pixkanaka urbanizatzen joan da, bata bestearengandik erabat aldendu diren arte.

Hala ere, Lauritaren eta Josebaren ekimen original eta berritzailaren eskutik (Ongi Bizi Arte Egoitza delakoaren sustatzaileak dira), bi mundu horiek uztartu dira, Josebaren kasuan jatorriari esker eta Lauritaren kasuan garapen pertsonal eta akademikoari esker. Haien bizi-proiektuak hainbat adierazpen artistiko lotu ditu ardienei eta artzaintzaren munduarekin, jarduera horren protagonista diren artzain eta ardienei, beren ohituren, irudien, soinuen eta abarren balioa azpimarratuz. Eta hori guztia, azpimarratuz beharreko zerbaitei baita, artistak landa mundura erakarritz, gure kulturaren partaide bihurtuz, eta artearen epizentroa landetara, eta gure artzainen bordetara eta etxoletara eramanez. Artzaineik, esan beharra dago, besoak zabalik hartu dute ekimen hau. Proiektu honetatik sortzen den adierazpen artistiko orok, “esperientzia” honetan tarteantzen dauden pertsonen lan guztiak, onura zuzena dakar gure sinboloetako batean: Karrantzako ardia. Eskerrik asko denoi!!

Sin embargo, el mundo pastoril y el artístico, pese a convivir entre nosotros durante miles de años, han seguido caminos paralelos, sin llegar a interrelacionarse entre ellos. Exceptuando algunas expresiones artísticas como la pintura, donde sí han sido algo habitual las representaciones de pastores y corderos, especialmente por su simbología religiosa, (desde el denominado “Buen Pastor” de Murillo (1660), pasando por “Pastor con rebaño de ovejas” de Vincent van Gogh (1884), hasta “El cordero” de Franz Marc (1914)), podemos decir que el arte y la cultura pastoril han pertenecido a mundos diferentes. Si la segunda se ha desarrollado, con toda lógica, en el mundo rural, el arte, de forma genérica al menos, podemos decir que se ha ido urbanizando paulatinamente hasta distanciarse por completo.

Sin embargo, la original e innovadora iniciativa de Laurita y Joseba, como pilares y promotores de lo que conocemos como La Residencia Artística Del Buen Vivir, ha conseguido unir estos dos mundos, debido tanto a sus orígenes en el caso de Joseba, como a su desarrollo personal y académico, en el caso de Laurita. Y su proyecto vital ha conseguido fusionar diferentes expresiones artísticas con el mundo ovino-pastoril, poniendo en valor a sus protagonistas, los y las pastoras de nuestro Valle y sus ovejas, sus costumbres, sus imágenes, sus sonidos, etc... Y todo ello, y esto también lo quiero destacar, trayendo a los artistas al mundo rural, haciéndoles partícipes de nuestra cultura, y desplazando el epicentro artístico a las praderas, las bordas y las cabañas de nuestros y nuestras pastores, que dicho sea de paso, han acogido este proyecto con los brazos abiertos. Toda expresión artística que nazca de este proyecto, todo el trabajo de las personas implicadas en esta “experiencia”, redunda directamente en el beneficio de uno de nuestros símbolos: la oveja carrañana. Eskerrik asko denoi!!



**ONDO BIZI JARDUNALDIAK II JORNADAS DEL BUEN VIVIR
ARTE y PASTOREO**

- KARRANTZA 2019 -

Maiatzak 4 de mayo - Kultur etxea - 12:00 - 14:30h

Aurkezpena/presentación

III Ondo Bizi Arte Egonaldia

III RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR

«CUADERNO DE RUTA, DE IDA Y DE VUELTA»

CARMA CASULA, artista visual + fotografía

«DIBUJO COSAS QUE ME IMPORTAN»

CARLA BOSERMAN, artista

«LA ESCUCHA DESDE LO ANIMAL»



DIEGO G. + CARMINA P. SORIANO

artista visual y acciónista + artista, actriz y educadora

«BIDEAK DOKUMENTALA»

ARITZ GANBOA, pastor de Arrazua







EKAINAK 15 DE JUNIO

- AMBASAGUAS AUZOAN -

KARRANTZA, 2019

ENCUENTRO ARTÍSTICO AGROPASTORIL

KARRANTZAKO ARDI MUTUR BELTZA



Tentaciones ILAGI, Panadería Mariako, Quesería Pasci, Ama Otxa Okindegia, Cárniceria Lombera, Cárniceria Leonero, Peñquería Maiko, Estética María, Supermercado Pedro Tañedo; Magora Baquety. Tabernak: El Cresco, Felipe, Urbeta, Basagun, Akelarre, Erpeak, Balandiñ, Bar 53, Cau Garza, Casa Feliz, El Rebollar, El Cartero, Deztaberrri.

Hitzaz pentsatzen dudanean, hatz dardarati
bat dela iruditzen zait askotan

Zerbait seinalatu, adierazi edo erakusten duen norbaiten hatz dardararia, aurreneko aldiz artile-haril bat eta orratz batzuk hartu eta galtzorratz-lana egiten hasten dena. Estatikotasunean bat-batean agertzen den gezi bat, zerbait erakusteko asmoarekin. Batzuetan, baina, agertu, azaldu eta hatzak luzatzen dituztenak, begiratzen dutena ia ukituz, ez dira eskuak soilik izaten. Espero ez duguna bat-batean agertzen zaigu batzuetan, inork seinalatzen ez duen zerbait da, inork ere begiratzen ez dion zerbait. Zerbait horrek begiratzeko forma eraldatzea espero du, aurrera jarraitzeko. Agian horregatik gustatzen zait hainbeste errepiide sekundarioetatik bidaiatzea. Helmugara iristeko unea atzeratzea, gutxiagotan zeharkatzen diren lekuetan geratzen dena behatzeko. Ordu asko ematen ditut horrelako errepiideetatik gidatzen, eta ideia irrigarri batez jolasten naiz, alegia, bide-bazterretan gertatzen dena esnatu egiten dela neu pasatzen naizenean, eta horren ostean estatikotasuna apurtzen dela, atzean geratzen dena bigarren existentzia bat izango balu bezala neuk autotik begiratu ondoren. Bide-lerroan gurutzatzen den mika urdin hori neu pasatzeko zain egongo balitz bezala, hegan egiten hasteko irrikaz, neuk gero behatu ahal izateko.

Pienso mucho en la palabra como un dedo tembloroso.

Un dedo tembloroso de alguien que señala algo, que apunta, que muestra, que coge por primera vez un ovillo de lana y agujas para comenzar a tejer. Una flecha que irrumpie en lo estático con el fin de descubrirnos algo. A veces, esas que aparecen y se muestran y alargan los dedos casi rozando lo que miran, no son solo manos. Lo que no se espera a veces se nos revela de repente, en algo que nadie señala, que nadie mira. Algo que quizás, espera que se transforme la forma de mirar para proseguir. Quizás, por esto, me guste tanto viajar por carreteras secundarias. Retrasar la llegada al destino para contemplar lo que sucede en los sitios que no se transitan tanto. Paso muchas horas conduciendo por este tipo de vías, y juego con la idea ridícula de que lo que ocurre en los márgenes se despierta al pasar yo, y que tras mi paso se produce la ruptura de lo estático, como si lo que quedara atrás tuviera una reexistencia después de contemplarlo desde el coche. Como si ese rabilargo que se cruza en el carril estuviera esperando impaciente a que yo pasara para alzar el vuelo y dejarme contemplarlo.

(Sarritan, irriigarri hitza erabiltzen dut baserrietara –nire lanagatik– bidaiatzen dudanean sortzen zaidan fantasia horretaz hitz egiteko, zeren ezinezkoa baita bestelako izenik ematea. Pentsatzeko forma hori, guztia existentziaren eremura mugatzea geu bertan gaudenean, gure marjinekin, gure inguruan gertatzen denarekin eta heltzen ez zaigunarekin, errakuntza polita da. Eta polita dela, diot, neuk badakidalako bera berez existitzen dela eta guztia betetzen duela, baina dirdai hori, animalia txiki hori edo argi hori ilunabarrean agertzen denean konturatzen naiz inguratzen nauenaz, bere erritmo propioa duen horretaz konturatzen naiz, berez taupadaka ari den paisaia horretaz, idazten duenaren begiradaren beharrik izan gabe)

Oso gauza gutxiei buruz dakit zerbait. Gustatzen zait neure burua ikastun gisa ikustea, inguratu eta ikaratzan nauen guztiarekin, zuhaitz txiki eta ahul batzuei –hazten jarraitu ahal izateko– jartzen zaizkien gidetan bermatzen diren adar horiek bezala. Baina uste dut badakidala zerbait, alegría, nire eguneroko bizitzan gurutzatzen diren dirdai horiek, guztiak landa-ingurunetik eta berari lotutako elementuetatik (biztanleak, animaliak, lurra) sortuta, egunero nirekin dudan idazkuntzaren sorburua direla, batzuetan egunak eta asteak igaro arren idatzi gabe edo papera atzamarkatu gabe.

Hitza, estela, hazia, dirdaia, babeslekua, ugaztuna, arrastoa.

(A menudo, uso la palabra ridícula para referirme a esta fantasía con la que juego mientras viajo de camino a las granjas con las que trabajo porque es imposible nombrarla de otra forma. Esta forma de pensar, de reducir al todo a la existencia solo cuando nosotros nos encontramos en ella, con nuestros márgenes, con lo que sucede alrededor y no nos alcanza, es un equívocación bonita. Y digo bonita porque yo sé que ella existe por sí sola y llena todo, pero es al aparecer ese destello, ese animalillo o esa luz al atardecer, cuando una cae en lo que le rodea, en ese todo que tiene su propio ritmo, en ese paisaje que late por sí solo y sin necesidad de la mirada de la que escribe)

No sé de casi nada. Me gusta verme como una aprendiz con todo lo que me rodea y me estremece, como esas ramas que se apoyan a la guía que se les pone a algunos arbolitos débiles para que puedan seguir creciendo. Pero creo que sí sé una cosa, y es, que de estos destellos que se cruzan en mi día a día, y que provienen todos del medio rural y de todo lo que él conlleva (habitantes, animales, territorio), nace la escritura que me acompaña día a día, aunque a veces pasen días y semanas sin escribir o arañar el papel.

Palabra, estela, semilla, destello, refugio, mamífero, rastro.

Dirdaiaz konturatzeko, beharrezkoa da begiratzen ikastea. Ikusmoldea aldatu behar da, eta uste dut agian apur bat inkontziente, iragazkor eta moldakor bihurtu behar garela, gertaerei geu eramatene utzi. Lurrean uzkurtzea, eskuak zikintzea. Lurralte bihurtzea. Ez dakit non irakurri nuen lurperatze hitza bere alde negatibora soilik mugatu dugula; esanahi bakar hori kenduko bagenio, baina, agian konturatuko ginateke babestuta sentitzen garela lurrez inguratuta, bero, seguro eta babestuta sentitzen garela, plazenta baten barruan egongo bagina bezala.

Gustatzen zait pentsatzea badirela lurralte- etxeak, plazenta- etxeak, haril- etxeak, animalia- etxeak. Sabitegi- etxeak, euskaraz gehien gustatzen zaizkidan hitzetako bat, haren bidez izendatzen baita lurrera behin betiko birlandatu aurretik zuhaitzen kimuak prestatu eta gordetzen diren lekua. Esnarazi, hoziarazi, hazarazten duten etxeak. Horrelako etxeek bere baitan hartzen dituzte lurrean elkarrekin bizitzeko hainbat forma, parte hartzeko, berreskuratzeko eta desagertzeko arriskuan dauden bertoko espezieak defendatzeko formak, ekologiaren, kulturaren eta lurraren arteko elementu beharrezko eta bizkorgarri bat izateko formak. Halaber, irribarre egiten dut Mutur Beltz idazten dudanean, beti irudi berbera etortzen baitzait gogora: ardi beltzak, aragoieraz marta deitzen zaienak, oso animalia estimatuak baitziren horrelakoak zitzuten artaldeetan. Erabat beltzak diren ardiak, inolako ile zuririk gabe. Animalia horiei ezin zitzaien odolik egin, oso zaintza berezia zuten, eta amuletotzat hartzan ziren artaldearentzat eta artzainarentzat. Transhumanteek kontatzen dutenez, martak dituzten artaldeekin arrisku gutxiago sortzen dira; oso zaila da hain goian, mendietan, ekaitz bat etortzea eta artaldearen gainean tximist bat erortzea. Eta irribarre egiten

Para ser consciente del destello, hay que aprender a mirar. Cambiar el enfoque, creo que incluso, volverse un poco inconsciente, permeable y maleable, dejarse llevar. Acurrucarse en la tierra, mancharse las manos. Volverse territorio. No sé dónde leí que la palabra enterramiento la habíamos reducido solo a su lado negativo, que si la vacíáramos de ese único significado quizás descubriéramos que nos sentimos protegidos rodeados de tierra, calientes, seguros, protegidos, como si estuviéramos dentro de una placenta.

Me gusta pensar que hay casas-territorio, casas-placenta, casas-ovillo, casas-animal. Casas -sabitegi, una de mis palabras favoritas del euskera para nombrar al lugar donde se preparar y se guardan los brotes de arbolitos antes de transplantarlos definitivamente a la tierra. Casas que hacen despertar, germinar, crecer. Hogares que dan cobijo a diversas multitudes de cohabitar la tierra, de formar parte, de recuperar y defender especies autóctonas en peligro de extinción, de ser un elemento necesario y reconfortante entre la ecología, la cultura y la tierra. También sonrió cuando escribo Mutur Beltz y me viene siempre la misma imagen: las martas, esas ovejas negras, llamadas así en aragonés, que eran animales muy apreciados en los rebaños que contaran con su presencia. Ovejas completamente negras, sin ningún pelo blanco. Animales a los que no se les podía hacer sangre, que tenían un cuidado especial y que se sentían como amuleto para rebaño y pastor. Cuentan los trashumantes que en los rebaños con marta se corren menos peligros, que es muy difícil, que allí arriba, en las montañas, venga una tormenta y caiga un rayo sobre el rebaño. Y vuelvo a sonreír porque me gusta pensar en estos espacios-casa-agroecológicos también como amuleto, como germe y mano que cuida

dut berriro, zeren gustatzen baitzait nekazaritza eta abeltzaintzako etxe-eremu horietaz amuleto gisa pentsatzea, gure landa-eremuetan bestelako bizi-eta ekoizpen-moduak posible direla pentsatzen dugunon hozi eta esku zaindari gisa.

Eta babesleku honetan hain bizia den taupada hori naturarekin erlazionatzen ber-ikasteko forma bat baldin bada, hain gertu dugun eta hainbestetan ahazten dugun natura horrekin erlazionatzen berriz ikasteko? Eta Mutur Beltzek sortzen duen paisaia hori sarez betetako narratiba berri bat bihurtzen bada, elkarren artean eta begiratzen gaituenari begiratzen ikasteko? Neuk ez dut zalantzarak. Hemen, hitzetan, hariletan, ardiengana, ekintzetan, taupada aurkitzen dut, paisaia, natura, lurrez zikindutako eskuak aurkitzen ditut. Bizitza bera, bizitza berbera.

a las que pensamos que otras formas de vida y de producción son posibles en nuestros medios rurales.

¿Y si este latido tan lleno de vida en este refugio es una forma de re-aprender a relacionarnos con la naturaleza que tenemos tan cerca y que tantas veces olvidamos? ¿Y si este paisaje que crea Mutur Beltz se convierte en una nueva narrativa llena de redes para aprender a mirarnos los unos a los otros y a todo lo que nos rodea? Yo no tengo duda. Aquí, en las palabras, en los ovillos, en las ovejas, en las acciones, se encuentra el latido, el paisaje, la naturaleza, las manos manchadas de tierra. La misma, la misma vida.

Luis Manuel Peña Cerro

Karrantza Haranean, 2019ko azaroan

ARTZAINAK eta ARTALDEAK

Artzaintzaz hitz egiten denean, bi protagonista soilik aipatzeko joera dago: artzaina eta haren ardiak; hala eta guztiz ere, apur batean gelditu eta gure ikuspuntua zabaltzan saiatzen bagara, “ekosistema kultural” hori osatzen duten beste partaide batzuk ere aurkiko ditugu: artzain-txakurra, aldizka zelatan egon ohi den otsoa, kumeak lapurtzen dituen azeria, Eguzkiaren argiak ardientzako elikagai bihurtzen duen larrea, eta putreak, ardiengoa bizitzaren amaieran haien gorpuak garbitzen dituztenak.


Eremua zabaltzen jarraitzen badugu, beste maila bat aurkitzen dugu, alegia, artaldetik eskuraturako produktuak: artilea, gazta, bildotsak eta, zergatik ez, karrantzarrok oso gustuko dugun plater bat: ardi gisatua.

Aspalditik, konplexutasunaren amarauna gero eta gehiago korapilatu da, eta artzaintza-teknikarekin eta beraren burokratizazioarekin zerikusia duten elementu berriak agertu dira, eta gainean politikariak eta presio-talde indartsuak, orkestra legegilearen aginte-makila eskuan hartuta.

Baina ez dira horiek osagai guztiak. Bi protagonistak sare sinboliko konplexu baten jatorria eta funtsa dira. Europar guztiak historikoki elkartu dituen elementua, kristautasuna, ezin askatu daiteke artzainaren eta beraren artaldearen erabilera metaforikotik.

Azken batean, abeltzaintza-mota batean diharduen gizabanako bat baino zerbait konplexuagoa da, hots, gazta, ahal izanez gero jatorriko deitura batez, eta bildotsak, nolabaiteko kalitate-etiketaz, ekoizten dituen abeltzaintza-mota batean diharduen gizabanako bat baino zerbait gehiago.

Dena dela, gaia ikuspegi horretatik jorratzea neurrigabea izango litzateke, zalantzarik gabe; beraz, neolitikotik biraka egon den eta horretan jarraitzea –nahiz eta, seguruenik, gero eta lur malkartsuagoetatik- espero dugun gurpil horren egitura sinplifikatu behar dugu nahitaez.



ARTZAINA


Burura datorkigun lehenengo galderari heltzea zaila da, eta haren erantzuna konplexua da. Nolatan gerta daiteke munduko lan bakartienan, artzainaren lana, artaldea zaintza izatea, berau giza masaren metafora baita?

Gaueko kontaketa

Guztioan ezaguna da ardiak kontatzeko praktika, lo egin ezinik dagoena Morfeoren besoetara iristen saiatzen denean, beso horiek etengabe kulunkatzen baitituzte eguneroko bizitza ordu batzuez uztea eta inkontzientearen basoa sartzea erabakitzetan dutenak.

Ez dut ezagutzen estrategia horren jatorria, baina irakurri dut, eta badirudi nahiko logikoa dela, haren eraginkortasuna monotoniatik datorkiola. Izan ere, artzaintzan aritzen ez den gizaki batentzat ez dago ezer aspergarriagorik artalde bateko ardiak desfilatzen ikustea baino, horietako bakoitzak aurrekoaren kopia baita (eta teknika hori grafikoki irudikatuta ikusi dudanean, ardiek hesi baten gainean egiten dute salto etengabe).

Hain ezaguna ez den beste praktika bat da, nonbait, larrean jandako bazka hausnartzeko lan astunaren ostean ardiek egiten dutena, lo egin nahi baina oztoporen bat hori egitea eragozten dienean. Orduan gizakiak kontatzeari ekiten diote; adibidez: merkataritza-zentro batetik irteten edo bertara sartzen diren gizakiak. Izan ere, ez dago ezer monotonagoagorik, bai sortzen duen asperduragatik eta bai jarduera horretan hainbat orduz tematzen direnen arteko antzekotasun arraroagatik, hipermodernityaren berezko ez-leku horietatik ibiltzea baino (Marc Augék esango lukeen bezala).



ARTALDEA

Gizakiok espazio eskizofreniko batean mugitzen gara: alde batean, ardiek irudikatzen dituzten inozentzia, babesgabetasuna eta jokabide gregarioa ditugu; eta bestean, berri, otsoen oldarkortasuna, hierarkia eta kontrol soziala. Eta bi muturrek deserosotasuna sortzen digute: artaldearen otzantasuna eta samaldaren basatasuna.

Bi puntak gara aldi berean, eta gure dualtasuna bai ardiengana eta bai otsoengana proiektatzen dugu. Iraingarria iruditzen zaigu artaldearen partaide garela entzutea, baina, bestalde, artzainak baldin bagara, ez dugu onartzen ardi batek iniziatiiba propioa izatea. Eta otsoak gorrotatzen ditugu, haien antz handia izan arren, Plautok esan eta hamazortzi mende geroago Thomas Hobbesek azpimarratu zuen bezala: *Homo homini lupus*, gizakia otsoa da gizakiarentzat. Eta orduan txakur bihurtzen ditugu otsoak, antzekotasun hori onargarria izan dadin guretzat.


Artaldearen komenientzia

Zer esan ote daiteke bere artaldetik urruntzeko joera duen ardi batez?; edo, artaldeak erabakitzeko badu bere bazka-larretik alde egitea, berak bere hartan irautea, askoz jota noizean behin marraka eginez, agian besteen arreta erakartzeko, agian ardia izaten jarraitzen duela berresteko. Batek daki.

Zeren eta, izaki horien jokabide gregarioa ikusita, eta hori beraren espeziearen bereizgarri nagusietako bat denez, ez dago argi ea hainbesteko indibidualtasunez jokatzen duen ardi bat ardia ote den benetan, ala ardi baten imitazio bat ote den.

Ardi indibidualistak deserosotasun ugari sortzen dizkio artaldearen jabeari; izan ere, artaldearekin lan egiten duenean, ardi-masa bat aurkitzea espero du jabe horrek, eta ez indibiduo multzo bat, eta are gutxiago iniziatiiba propio eta originala duen indibiduo multzo bat; horregatik, azkenean egingo duena izango da, seguruenik, ardia hil eta gisatuta jan. Hortik ondorioztatzen da ez dela komenigarria artaldetik urruntzea, hori indibidualtasuna errebindikatzeko joera batengatik egiten bada.

Dena dela, kontuan hartzen bada artaldetik banatzen den ardiak ez duela bere borondatez egiten, baizik eta zaharra delako edo errenka dabilelako, horrek eragozten baitio artaldeari jarraitza leku batetik bestera mugitzen denean, horren ondorioa da bere bizitza barazki batzuekin batera bukatzen dela plater batean. Beraz, erraz ondorioztatu daiteke ez dela komenigarria artaldetik inola ere urruntzea.



ARTZAIN-TXAKURRA

Iraganean, artaldeak zaintzeko lanak artzainek berek egiten zituzten soilik, txakurren laguntzari heldu zitzaison arte. Hasieran, artaldea erasoen aurrean babesteko erabili ziren, batez ere otsoaren erasoen aurrean. Horregatik, animalia sendo eta basatiak izan behar zuten, artzakurrak bezala, hots, otsoei aurre egiteko ahalmena zuten txakurrak. XX. mendean, otsoa atzera egiten joan zen heinean, artzakurrek erabilgarritasuna galdu zuten eta haien ordez gidatze-txakurrak erabili ziren, hots, gorpuzkera makalagoa zuten txakurrak. Azken horiek, artzain-txakurrak, ardia gidatzeko balio dute eta nabarmen hedatu dira.

Zalantzak gabe, ondo trebatutako txakur bat oso baliagarria da eta lan asko kentzen dio artzainari. Esan behar da, bidez batez, txakur horien erabilera artalde transhumante handietan hedatu izanak lana kendu ziela haurrei, ordura arte haien arduratzen baitziren lan txiki horietaz.

Otsoaren itzulerak artzakurrak berriz erabiltzera eraman du.

Ondo begiratuta, berez bada maltzurra otsoak harrapatzea eta belaunaldi etxekotzea, lagungarriko abere bihurtu arte, eta haien izaera bihurritzen jarraitza, artzain-txakur bihurtu arte, gero haien harrapakin naturalak zaintzen jartzeko. Eta hori aski ez balitz, aukeraketa bat egitea euren arbasoen kontra matxinatzen diren arrazak lortu arte.

Artzain-txakurra

Artzain-txakurra otso kolaboracionista bat da, inbaditzaleekin aliatza erabaki zuena eta harrezkero laguntza ematen duena ardi-herriak pairatzen duen esplotazioari eusteko; guztiok dakigunez, herri horrek antzinaroan ditu bere sustraiak eta sinbolismo sakona du kultura semitikoarentzat.

Agian horregatik, otsoak are gehiago gorrotatzen du txakurra inbaditzalea baino, zeren txakurrak islatzen baitu guretako bakoitzak bere baitan gortzen duen kondizio miserablea.


Nolanahi ere, noizean behin txakurrei agertzen zaie hainbat milurtekoz barnean gordeta izan duten instintua eta artaldeari erasotzen diote. Esaten da “odolarekin zaletzen” direnean ez dutela atzera bueltatzerik, eta orduan ezinezkoa dela barnean daramaten otsoa otzantzea.

Iraganean, bi aukera konsideratzen ziren animalia hauekin, hots, gizakiek gure kide desbideratuei ezartzen diegun zigorra islatzen duten bi aukera: lotuta edukitza (biziarteko zigorra) edo hiltza (exekutatzea). Kasu horretan, bi prozedura erabiltzen ziren: eskopeta-tiro batez hiltza (fusilamendua) edo urkatzea. Orain, batzuen “injekzio hilgarria” aukeratzen dute, albaiteroari borreroaren rola egotziz.

Urkamendia

Txakurraren azken begirada bere jabearen begietara joan zen; bitartean, zoriontzeko xedez hainbat eta hainbat aldiz ferekatu zuten esku sendo haien airean sostengatzen zuten, oraingoan indarkeriaz, askatu eta pisu osoz jausten utzi baino lehen, soka itogarria bere lepoaren inguruan sentituz.

Agonia jasangaitzeko azken segundo horietan, bere gorputzak aire apur bat hartzea ahalbidetuko zion posizio bat berreskuratzen saiatzen zen bitartean, bere bizitzaz gogoratu zuen bat-batean, erritmo izugarrian burutik pasatu zitzazkion irudi garbi eta hegazkorrekin. Bere bizitzak berak abiadura berean agertu nahi balu bezala, hots, iraganean barne hartu zuen gorputzetik ihes egiten zuen abiadura berean. Guztia arinegi gertatu zen, edo min emateraino astiro, hain ulergaitza zaigun eta bizia eta heriotza banatzen dituen murru horren alde batean edo bestearen nor zegoen, horren arabera.



OTSOA

Pat Shipman estatubatuarr antropologo bat da, gai honi buruzko hipotesi bat defendatzen duena, zeinaren arabera gizaki modernoak, orain dela 50.000 urteko Europa izoztura iritsi zirenean, aliantza bat egin zuten otsoekin ehizarako. Bada, aliantza hori izan zen otsoak otzantzeko eta txakur bihurtzeko prozesuaren hasiera. Hauek unatu egiten zituzten euren harrapakinak, haien atzetik segika joaten, eta azkenean ehiztariek hiltzen zituzten. Estrategia horrek abantaila nabaria ekarri zien gizaki berriei, hau da, gure arbasoei, eta azkenean desagerrarazi zuen Kontinente Zaharrean 200.000 urte bizitzen zeramatzen beste gizateri bat: neadertalak.

Ez dakit noraino den zehatza hipotesi hori, baina garbi dago gizakion eta otsoen arteko loturak oso konplexuak direla eta aspaldiko garaietara eramatene gaituztela.

Otsoak Europako herri askoren jatorri mitikoan nahastu ziren, Romulo eta Remori bularra eman zion otsemearen kasuan bezala. Gogora dezagun kultura hori izan zela lerro hauek idazteko erabiltzen dudan hizkuntzaren hasiera. Lagun izan genituen haurtzaroko ipuineta, hala nola Txano Gorritxo edo Hiru Txerrikumeak. Nonahi agertzen dira gure elezaharretan; adibidez: likantropoen elezaharrean. Eta hain daude errrotuta, non gure izen eta abizenetan txertatzeten baitira, eta toponimian ere, modu oso agerikoan.

Otsoa artzainak gehien gorrotatzen duen animalia da; izan ere, artzainak mendez mende jazarri du, amorruz, bere artaldea defendatzen saiatuz, harik eta XX. mendeko bigarren erdian penintsulako labar garaienen aurka jartzea lortu zuen arte. Artzainak kenduta, gizartea errezeloz begiratzen dio gorroto horri; garbi dago, jakina, urbanita etxera itzultzen denean ez zaiola gertatzen egun batean garbigailua falta zaiola, beste egun batean telebista,...

Hainbat hamarkadaz agertu gabe egon ondoren, itzuli egin da, eta ardiak mendietatik uxatzen lagundu du. Egia da, baina, artzaintzaren gainbehera otsoen absentziaren garaiarekin gertatu dela, eta horrek pentsarazten digu haren krisia askoz ere konplexuagoa dela. Gaur egun, agian otso arriskutsuenak dira euren oinetakoei bulegoko moketan distira ematen dioten eta lepoan zetazko gorbata dotoreak eramatene dituztenak.

Laidoa

Otsoak urrunetik behatzen zuen artaldea, jakitun egonda beraren presentziak berak uxatuko zituela batzuetan urduri eta beste batzuetan bare bazkatzen zuten animalia haiek.

Haren harrapakinei begiratzean, tristura eta amorrua nahasten zituen begietan. Berari benetan gustatzen zitzaina basa-animalien okela gogorra zen, euren bizitza beti ziurgabetasunaren ertzean nahitaez landu behar zuten esfortzuak modelatutako giharrez beteta baitzegoen. Okela mamitsua eta dasta onekoa, azken ihes-lasterraldiak eta heriotzaren aurkako erresistentzia gogorrak uzten duen kutsu berezi horrekin.

Ardiak hiltzea entretenimendu txikia izango zen, erabaki horrek berekin beti ekartzen zuen arriskuagatik izan ez balitz. Arrisku horrek zerikusi gutxi zuen ardiekin, baizik eta, askoz gehiago, betidanik bere lurraldea izan zenera iritsi berria zen animalia asaldatzailarekin. Animalia arrotz haiiek, beste animalia batzuk hazten zituztenak ahalik eta gehien esplotatzeko eta horren ostean hiltzeko, gehiago ezin aprobetxatu zitezkeenean. Bere ikuspegitik, hori esklabotasunaren hazia zen, abeltzaintzaz hitz egiten zuten terminoekin mozorrotzen bazen ere.


Berak bere espeziearen memoria gordetzen zuen, eta bere arbaso zaharren bizitza ezagutzen zuen, sarkina iritsi baino lehen, baita heldu berria zen hura animalia babesgabe bat besterik ez zenean ere, hots, guztiz beharrezkoa zenean xaxatu zitekeen beste animalia babesgabe bat zenean. Bain animalia errugabe hark adimen handiagoa zuela erakutsi zuen, eta batez ere irmotasuna eta iraunkortasuna kolapsoaren mugara eraman zuen errakuntzan, beraren mundua konpartitzen zuten gainerako izakiei gertatzen zitzaien bezala, bai harrapakinei eta bai harrapariei.

Animalia berri hark gogo handia zuen bere ingurunea modelatzeko esnatuta izaten zituen ametsen arabera, ez lotan zegoenean amesten zuenaren arabera; izan ere, azken horietan protagonista izateari uzten zion eta kontrola galtzen zuen, hainbesteraino non otsoak orduan soilik jazarri zezakean. Bain animalia errugabe hark adimen handiagoa zuela erakutsi zuen, hots, eragozpenak haren bidean jarri zituenen amesgaiztoak.

Otsoak ikasita zuen erresistentzia zela geratzen zitzaison aukera bakarra. Garai batuetan, gizakien goseak lurrik galtzen zuen; garai onetan, berriz, gizakiak landaremuertatik ihes egiten zuenean hiri izeneko gordeleku arraroetan pilatzeko, berak berreskuratzen zituen abandonatu behar izan zituen lurrik. Eta horrela zihokion bizitza, beraren bihotz menderaezina estutzen zuen tirabira batean. Azken batean, ondo baino hobeto zekien bere espeziearen amaierak ez zuela erremediorik, lur berde eta menditsu haietan milaka urtez berarekin konpartitu zuten izaki gehienei gertatzen zitzaien bezala.

Atsekabetuta -eta sarritan goseak jotak- ikusten zuen nola zabaltzen zuten gizakiek euren interesen mahai-zapia, eta nola hedatzen zuten han-hemenka, amaierarik izango ez balu bezala destolestuz, eta berarekin gero eta lur gehiago estaliz. Mahai-zapi hark ito egiten zuen estaltzen zuen guztia, eta beraren gainean ospatzen zen gizateriaren otoruntza. Jainkoaren eskuak ukituta, ezein izakik ezin zion aurre egin. Ahal zutenek garaiz alde egiten zuten; geldoagoak eta erresistentzia suizidan tematutakoak, berriz, besterik gabe hiltzen ziren.

Eta orduan pena sentitzen zuen, bere kideengatik eta urrunetik etorritako animaliengatik, zeren ez baitziren gai egun batean euren buruari ezarri zioten itsutasun-errezelak kentzeko, hau da, euren berezko animalia-izaerari uko egiteko onartu zuten itsutasun-errezelak kentzeko.



BELARRA

Karrantza Haranean, ardien artzaintza beheko larretatik mendietako gailurretaraino edo kordoietaraino hedatu da. Artaldeak poliki-poliki igotzen ziren mendian gora, belarra udaberriarekin batera hazten zen neurrian. Udazkenean, jaitsiera beste gradiente batek markatzen zuen: temperaturen gradienteak. Etxeetatik gertu dauden larreak artaldeen neguko babesia izan dira kostaldeko mugapera joaten ez ziren artaldeentzat. Halaber, jaio berriko ardi batzuen eta arkumeen babeslekua izan dira. Otsoa berragertu zenean, zenbait hamarkadaz desagertuta egon ondoren, urtaroen ziklo hori apurtu zen. Harrezkero, artalde asko beheko larretan geratzen dira beti.

Larreak segida ekologikoaren beheko maila dira, eta, hortaz, haien jabeek aurre egin behar diente euren kondizio klimazikorako iristeko joera naturalari; gure kasuan, haritza nagusi den baso mistoa izango litzateke kondizio hori. Bestela esanda, basoak berea dena eskatzen du etengabe, eta sasiek eta iratzeek etengabeko borroka baten lehenengo lerroa osatzen dute.

Horregatik, abeltzainek urtero segatu behar izaten dute larrearen gainazala okupatzen eta belarraren lekua hartzen saiatzen den “sasitza”; zeregin horri birsegatzea deitu izan zaio betidanik.

Gizakiok, antzina baso zaharrek okupatzen zuten lurrarde honen inbaditzaileak izateak ematen digun nagusitasunetik, mespretxuz betetako bi hitz asmatu ditugu okupazio horri aurre egiten dioten animalia eta landareak izendatzeko: piztia eta sastraka.

Ikusmolde tradizionalean, laharrik larrearri egiten diona otsoak artaldeari egiten dionarekin parekatzen da.

*Soka bat bezain luzeaaaaaa,
Otseme batek dituenen moduko hortzaaaaaak, zer da?*

Gudu galdua


Sagarrondo erorian eserি zen, izerditan eta asaldatuta. Ordubete bat baino ez zeraman laharrik segatzen saiatuz, hauek udazkeneko larrean bazkatu berriko belarra estaltzeko ahaleginetan ari baitziren maltzurki, eta akituta sentitzen zen. Bazirudien bere inguruko aire garbiak uko egiten ziola beraren birikaren hondoraino sartzeari.

Azken sasoian, zaitasunak izan zituen birsegatze-lana bukatzeko, hau da, bere artalde gutxituari bazka ematen zioten larreak inbaditzen zituzten espezieak kentzeko lana bukatzeko. Urte horretan bazekien ez zela gai izango larre guztiak garaiz atontzeko. Urtez urte menderatu zituen aurkari matxino haietako gudua irabazten hasiak ziren. Urteko borroka bakoitzean irabazle atera zen beti; orain, baina, etsipenez ikusten zuen nola luzatzen zituzten euren estoloia eta nola errrotzen ziren han eta hemen, ordura arte belarraren jabetza izan zen lurra inbaditzen zuten landare berriak sortuz.

Agian artzaina ez zen konturatzten bera bazela, nolabait, aspaldi hil zitzzion aitaren desioaren luzapen bat, alegia, aurrez aurre jarritako laharrek kontrolatzeko desioaren luzapena. Bere aitak gauza bera egin zuen bere aitonaren desioarekin, eta horrela iraganerantz jarraituz, belaunaldiz belaunaldi. Izan ere, nahiz eta laharrek aurrera egiten zuten larrearen gainazalak irudikatzen zuen espaziotik, beraren jabeek denboran zehar bidaiatzen zuten, gudua irabazteko xedez laharrek egiten zituzten ahaleginak hamarkadaz hamarkada gelditzen saiatuz. Baina bera ez zen gai izan beraren leku hartuko zuen hurrengo belaunaldia sortzeko; bazirudien patuaren kodainak moztu egin zuela ondorengotza bermatzeko desio moduan luzatu zuen estoloia.

Indarra izan zuen bitartean, mehatxu hori kezka sor bat besterik ez zen izan. Orain, aldiz, gorputza bere borondatearen kontra matxinatzen hasita, mehatxu erreal bihurtu zen. Beraren leinuak denbora luzez altxor moduan zaindu zuen larre hora sastrakaz estalita bukatuko zen, eta gudua behin betiko galduko zen. Bere ezintasunagatik tristatuta, eserita geratu zen apur batean, sentitzen nola bere bihotzak geldotzen zuen, poliki-poliki, kodainaren mugimendu kulunkarirantz hasita zeukan lasterraldi azkarra.

Altxatu egin zen, erreminta zaharra eta harria hartu zituen, eta ertza zorroztu zuen berriz ere. Lasai asko lanera itzuli zen, goizeko ordu batzuk geratzen zitzaino artean ere, baziaria jateko ordua iritsi arte. Lahar matxinoen zutoinak segatzen zituen bitartean, pentsatu zuen guduaren emaitza jakiteak ez zuela indargabetzen erresistitzen jarraitzeko beharra. Ez ote zituzten laharrek berek euren zutoin luzeak urtez urte ateratzen, hedatzeko asmoarekin, gupidarik gabe anputatuko zituztela jakin arren?



MERKATUA

XX. mendean, artzaintzak bizimodua izateari utzi zion, eta horren ordez jarduera ekonomiko hutsa izatera pasatu zen. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera guztietan gertatutako eraldaketa bat izan zen. Eredu kapitalista berri eta ahaltsuak baztertu zuen artzainak bere animaliekin eta beren lan-ingurune naturalarekin zuen lotura estua, eta horren ordez modernitatearen menu gozoa jarri zuen, efizientziaz, produktibitatez, lehiaz eta gisa bereko espeziez ondua.

Artzain zahar asko ez ziren iritsi aurrerabidearen mahaira esertzera; eseri zirenetako asko, berriz, oturuntzatik alde egin behar izan zuten betekada merkantilista larri batengatik.

Kapitalismoa sistema ekonomiko eta ideologiko ahaltsu bat da, zeren urdailak betetzeko gaitasuna baitu, horren truke buru gehiegi husten baditu ere. Beraren lorpenetako bat da betiko gauzak bihurritzea, modernitate-itxura eman arte: lurra landa-lurzoru bihurtu du, betiko larreetako belarra pentsu ziztrinaren kategoriara jaitsi du, arto eskukadaren ordez soja transgenikoa jarri du, hau da, abeltzaintza intentsibo globalizatuaren paradigma; korta zaharrak kontzentrazio-zelai sofistikatu bilakatu dira, animaliak ekoizpen-bide bihurtu dira, eta hien jabeak ez dira gehiago nekazariak, baizik eta profesionalak. Eta profesionalak diren neurrian “ustiapen” zenbaki bat asignatzen zaie, euren animaliei ezartzen zaizkien krotaloen antz handia daukatenak, nahiko gauza susmagarria azken hori.

Kapitalismoak monolaborerako joera du, efizientzia lortu nahirik: abeltzain mota bakarra, ganadu-arraza hautatu bat, llollobelarrren monolabore bihurtutako larreak, eremu erraldoietatik datorren soja, ekoizteko modu bakar bat, banaketa- eta salmenta-kanalen kontzentrazioa eta, batez ere, munduari begiratzeko forma baztertzaile bat.

Sistema hori, baina, pitzatu egiten da gure ardiei aplikatzen saiatzerakoan; zerbaite ona izan behar zuten animalia horiek, mendira hobeto egokitzen baitira zementura baino.

Merkatuko prezioa

Bere etxe ondoko errepidetik txistuka deitzen zion kamioira hurbildu zenean, ganadu-garraio bat zela konturatu zen. Gidaria galdua zegoen, eta Bielek aukera baliatu zuen berriketen hasteko eta zer-nolako animaliak erosten zituen galdetzeko. Alboko probintziako hiltegira eramatzen zituen ardi zaharrak erosten zituela erantzun

zionean, argi izpi bat agertu zen artzain zaharrak bere artaldearekin azken urteetan zeharkatu zuen lur iluna estaltzen zuen zeru arrean.

Bielek hainbat hilabete zeramatzen ardi batzuk saltzen saiatuz, baina ez hainbeste haien truke lortu ahal izango zuen diruagatik, hori beharrezkoia izan arren, baizik eta bat-batean zahartu egin zelako, eta horrek sufrikario bihurtu zuelako ordura arte gozamena izan zen eguneroko lana.


Frustazioen poderioz, barneratuta zegoen ez zuela inoiz ere berriro lortuko prezio justu bat bere animaliengatik. Krisi ekonomiko orokorra urruneko albiste bat iruditzen zitzaison hasieran, bera bezain kaskatuta zegoen irratia batean gauero entzuten zituen gerrak bezain urrunekoa –irratia hora zen bere lurrean ezinbestean pairatu behar zuen deserriaren afari bakartietan zeukan lagun bakarra–; gero, berriz, guztiaz jabetu zen, eta haren tentakulu luzeak beraren mundu ahulduraino iritsi ziren. Mundu hori krisian zegoen etengabe, baina krisi hori minuskulaz idazten diren horietako bat zen, hots, sufritzen dituztenentzat soilik mingarriak diren horietako bat.

Apur batean hitz egin zuen gidariarekin, eta adostu zuten ardi zaharrenetako batzuk aukeratuko zituela akordio bat ixten saiatzeko. Gidariak beste etxe batera joan behar zuen aurretik, lehenago erositako beste ardi batzuk kargatzera, eta itzultzean handik pasatuko zen beraren ardiak ikustera.

